



BARREN
TOKIKOM



Coats Duet
better performance

Herradura
Coats Cotton
quality by nature



Bizitza osoa mostradore atzean



Ezkerretik eskuinera, Amaia Lasagabaster Elgoibarko Izarrako kudeatzailea, Sonia Garcia Mendaroko alkatea, Ane Beitia Elgoibarko alkatea eta Ainhoa Andonegi BARREneko arduraduna.

Elgoibar eta Mendaroko

zerbitzuen **gida komertziala** banatu dugu

Elgoibarko eta Mendaroko udalen babesarekin, 2017ko zerbitzuen gida komertziala argitaratu du BARREnek. Mila esker udalei emandako laguntzagatik.



- ◆ 6.000 ale banatu ditugu, doan, Elgoibarko eta Mendaroko etxe guztietan. Hala ere, gida jaso ez baduzu BARREn edo Elgoibarko Herritarren Arretarako Bulegoan eskuratu dezakezu.
- ◆ Gida online ere badago ondorengo webguneetan: **www.barren.eus**
www.elgoibar.eus
www.mendaro.eus
- ◆ Sakelako telefonoetarako aplikazioa eskuratzeko: **barren.eus/gida.apk**



Eskerrik asko publizitatea jarri duzuen guztioi!

2018ko gidan agertu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

- ◆ 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
- ◆ 943 741 746 - kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus



MADDI MENDIBIL



“Euskal Herritik ihes egin dotenian konturatu naiz zelako sehaskia dan haura”



ué pasa, gaditana!?

“Anai-arrebak entzun
ene ahotsa
izaite bat ez daizke
hezur hutsez osa”

Horrenbeste denbora BARREnerako zer idatzi eta zer idatzi pentsatzen eta... oin arte gizurretan ‘bai, hasitta nago’ esan badizut ere, *keba*, ointxe hartu dot lehenengoz arkatza eskuan.

Ez dakit zer idazteko hartu doten ere, baiña unibertsidadeko komedore erraldoi honetan, jende artian ikusi dot nere burua (jende artian, bai, hamen holan sentitzen naiz sarri-eta; pertsona gitxi eta jende asko, hamen danok jende) eta kuriosua begittandu jata situaziua. Espainiña erdixan eta nere unibertso txikittik erteteko zailtasunekin: Interneten *Berria*, *Naiz* eta *Topatu*

zabaldua (esamin garaixetan irakurtzen dittut-eta nik notiziak), aurikularretatik Mikel Laboa entzuten eta neure buruarekin euskeraz berbetan.

Kanpora etorri (kanpora etorri leike?) eta denboriari tenperatura bajatzen hasi jako, izoztera allegau arte. Denboria izoztu ein da, nik, hor bizitzak aurrera zelan darraien ikusteko, eta hamen nao, begira.

Zer ete dauka Euskal Herri txiki honek gure burua modu honetan haundi-txikitze? Handik ihes egin dotenian konturatu naiz zelako sehaskia dan haura. Eta pentsau dot, horrekin batera, ia sehaska hori kartzela bihurtzen ete jakun...

Baina igual erasmus mundu honetan bizi izatian eragina ere izan like pentsamendu hori bera. Kanpora juan bihar da, kanpokua ezagutu, aberastu, burua zabaldu... eta hori egitterik nahi ez badozu, “burua itxitta daukazun” seiñale. *Eta ojo*, hori eginda ere, segun zelan bizi izan dozun, berdiña.



HAIZEA BERISTAIN

“Begittantzen jata badaukagula presio puntu bat kanpora jute horrekin”



ué pasa, *quilla!*?...Mundua ere geure antzera biratzen da. Bere buruaren giltza topatu eziñik.” Badakizu, denbora gehixago bihar izaten dogu guk zeri buruz idatzi pentsatzen idazten baiño.

Onartzen ez dogun arren, pentsatzen hasitta nago plazerra sortzen digula danari bi buelta t’erdi gehixago ematiak.

Atzo bertan entzun nion bixittan zetorren bati (amenaza antzian eta hatz erakuslia luzatuta) “Disfratau hau, bizitzan behin eukiko dozu-eta!”. Etxera etorri eta nere esperientzian pentsatzen jarri nitzan. Zela Gabonetan herrira bueltau eta kanpua bizi dan jende danari entzuten nion mundial bizi zira, han geratuko lirakela denbora gehixago... “eta zu, zu zer moduz?” galdetzen zien orduan, eta nik irribarre erdi batekin eta eskumako sorbaldia gora jasota, ‘gaizki ez’ erantzun.

Begittantzen jata badaukagula presio puntu bat kanpora

jute horrekin. Mundiala, ahaztu ezindakua, intensua, bizi esperientzia onena... Urte erdi Espainiña behe alde honetan pasau ostian (ni ezin erdixakin konformau) esperientzia intenso horrek noiz agertuko zain eta horrek bilatzeko ahalegin konstantian topau dot nere burua, errutina eguzkitsu eta lasai honi bizkarra eman nahixan. Onartu biharra daukat inbidixa sanua diuetela esperientzia errusiar mendi bateko biqjia lez bizi daben hórrei, baiña batzuetan dudan jartzen dot ‘bizitzako esperientzia onena’ horrek zenbat daukan egittik eta zenbat hola izan biharraren presiotik.

Izango da kapritxosa batzuk garala eta bat euki eta bestia nahi, gure zapatak eziala lur honetara ohitzen, pertsona gitxi topau dittugula jende artian-edo, faltan botatzeko ausentzia ezinbestekua izanik, oin arte ez dogula Euskal Herri txiki haundixan sehaska kantua entzun eta oin oihartzun haundixa daukala! Noiz zatoz bixittan erdittik behera?



Hizkuntza espazio publikora ekartzearen garrantziaz

eta estatikoa, hormek ez dute ahots bakarraren ize-
nean hitz egiten: mezu bakar
baten atzean hainbat talde-
ren ahotsak ager daitezke, eta
talde horien atzean norbanako-
enak. Ahots ezberdinen presentzia
hori halabeharrezkoa da, esplizitu
egiten baita paretetan subjektu kolektibo-
aren presentzia, parte-hartzea eta adimen
kolektiboa sustatuz. Izan ere, espazioa,
bizi dutenen praktiken bitartez eraikitzen
da, baita moldatu ere. Beraz, ezinbeste-
koa da hitzak kalera ekartzea edozein
praktika sozial edo politiko ulertzeko.

Egun baditugu komunikabideak, baita
sare sozialak ere, baina mezua kalera-
tzeak duen garrantziaz jabetzen gare-
nean soilik egingo dugu espazio publikoa
geure. Mezua plazaratu eta espazio pu-

blico hori bereganatzeko hizkuntza bat
edo beste aukeratzea erabaki politiko bat
da. Izan euskara, txinatarra edo arabiera.
Horrek duen pisua onartzeak geure prak-
tikak moldatzea dakar. Eta geure prakti-
kak aldatzea hain juxtu, ez al da, ba,
eraldaketa sozialerako lehen pausua?

Espazio publikoa apaintzen duten hi-
tzek paisaia linguistikoa osatzen dute, eta
edozein paisaiaren pare, gero eta abera-
tsagoa hobe, gero eta anitzagoa hobe.
Hizkuntza ugarik osatuko dute gure he-
rriko paisaia linguistikoa, eta beste horren-
bestek hartuko espazio publikoa. Ariketa
txiki bat: jarri arreta herriko paisaia lingui-
stikoan, espazio publikoa hartzen duten
hizkuntzetan, bat baino gehiago harrituko
baitu aurkitutakoak. Eta hausnarketarako
galdera bat: zein leku hartzen du euska-
rak espazio publiko horretan?

hikoa da kaleak pintadaz bete-
rik ikustea, irudiak, aldarrikape-
nak, kartelak, iragarkiak eta
hitzak. Hizkuntza herriko edozein txokotan
aurki daiteke, uneoro dugu present, eta ez
gure ahotan soilik. Hizkuntzak (eta hizkun-
tzeak) espazio publikoa hartzen du(te), eta
bestelako komunikazio tresna bihurtu.

Hizkuntza, hala ere, ez da bakarra

*“Mezua plazaratu eta espazio publiko hori bereganatzeko
hizkuntza bat edo beste bat aukeratzea erabaki politiko da”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Erakundearen Espazioa

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-
kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain
hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adieraz-
takoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN**
ARDURADUNA Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizaba-
laga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora
Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea
Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma
Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila,
Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ain-
hoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien An-
sola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz
Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander
Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazal-
degi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu
Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92
ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBARKO
UDALA

EUSKARA
elgoibar
BIZI-ERAKUNDA

LAGUNTZAILEAK:



MENDARO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikuzunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► 2017KO JUAN MUGUERZA KROSAREN ESKER ONA

Ilatzi honen bidez, Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXXIV. edizioa Mintxeta A.T. batzordeak eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, euren laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuzabaltasunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen 2017ko urtarrilaren 22an egindako krosak.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriri; alde batetik, ekitaldi hori antolatzerako orduan emandako laguntzagatik, eta bestetik, gure herrira krosetan parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herririaren izena, aste betez, mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adierazten baitira.

Krosa herriarena da, eta herriak maitatzen jarraituko duela espero dugu. Edizio honetan Euskadiko krosik onena izan gara berriro ere; eta antolaketari eta kirol

arloiari dagokionean, estatuko hoberenari tarikoa. Mundu mailan ere ikusi dute gure krosa desberdina dela.

Eskerrak asko baita ere komunikabideei, ikusleoi eta bereziki laguntzen egon diren hamarnaka boluntarioei; handiak zarete!

Hortaz, lanean jarraituko dugu, datorren urtean ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2018.eko urtarrilean krosaren 75. urteurrena ospatzeko. Mila esker.

Mintxeta Atletismo Taldea

► BERANDU BAINO LEHEN

Eta horrela diogu azken asteetan euskal preso politikoen inguruan irakurtzen ari garen albisteak horixe pentsarazten digutelako. Sara Majarenasen alaba, Izar, hiltzen saiatu da bere aita. Banatze bidean zegoen bikotea, eta ama mintzeko asmoz, alaba hiltzen saiatu da aita. Zorionez, ez du lortu nahi zuena baino larri zauritu du. Ama umea dagoen ospitalera eramatea onartu du Auzitegi Nazionalak. 12 urte bete ditu

Sarak espetxean, eta 13 urteko zigorra du. Legedi arruntarekin kanpoan behar harko luke Sarak aspaldi, baina gerra legea aplikatzen zaio.

Ibon Iparagirre, egoera larrian dagoen preso, berriro jipoitu dute beste preso batzuk Alcalako espetxean. Gaitasun sendaezin eta itzulezina du Ibonek. Eta espetxean mantentzen dute. Manu Azkarate, gaixo dagoen beste preso bat, ospitalera eraman behar izan dute okerrera egin duelako bere osasun egoerak, tartean polizia frantsesak emandako tratuagatik.

Ez da hemen bukatzen zerrenda. Arantxa Zulueta isolamendutik ateratzeko agindu du Auzitegi Nazionalak. Bi urte pasa egin ditu erabat bakarturik...

Egoera hauek salatzeke Elgoibarko SAREk ostiralean egingo den giza-kartera gonbidatzen ditu elgoibartar guztiak. 20:00etan irtengo da Maalatik eta Kalegoen plazan bukatuko da.

- Larriki gaixo dauden presoak etxera! Izar eta Sara, etxera!

Elgoibarko SARE



Patxi Larrañaga Zubizarreta

"Aldapa"

2017ko otsailaren 9an hil zen, 83 urte zituela

*Aldapa, zure etxe maitea
guretzako betirako
oroitzapenez bete.*

Ez adiorik!

Etxekoak



Felix Etxeberria 'Parapan' torturatu izan zela onartu du Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritzak

Felix Etxeberriak egindako tortura salaketa aintzat hartu du Jaurlaritzaren menpeko Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, eta, memoria historikoa egiteko betebeharra kontuan hartuta, Etxeberria biktima dela aitortzeko eta "bidegabekeriak gogorarazteko jardura kolektiboetan" sartzeko eskatu die Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari –iazko ekainaren 27an sinatuta dago dokumentua–. Era berean, estatuko erakundeei eskaera bera egiteko gomendioa egin die Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari. Etxeberria berak aurkeztutako dokumentazioan, Gipuzkoako Gobernu Zibileko agirietan eta epaileak Etxeberriari hartutako lekukotzan oinarrituta eman dio sinesgarritasuna Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak tortura salaketari.

Torturak

Felix Etxeberria bi aldiz atxilotu zuten 1970ean, eta bi aldietan, torturen, tratu txarren eta polizia mehatxuen biktima izan zela jaso du Giza Eskubideen Zuzendaritzaren balorazio batzordeak. Burgosko Prozesua hasi zen garaian izan zen, Etxeberriak 44 urte zituela. Hiru eguneko greba orokorrerako deialdia egin zuten, eta deialdi harekin bat egin zuen Etxeberriak. Hala, abenduaren 3an Kalegoen plazan egin zen protesta ekitaldian parte hartu zuen. Protesta bukatu eta berehala, guardia zibilak plazara agertu eta bildutakoei oldartu zitzaizkien. Greba bukatu eta lanera itzuli zenean, guardia zibilak bere bila joan zirela esan zioten lankideek Etxeberriari eta, abenduaren 10ean, bere burua aurkeztu zuen kuartelean. Sartu bezain laster, gela txiki batera eraman zuten. Hiru guardia zibil zeuden han eta haietako batek makilaz jo zuen, eta mehatxu egin zioten besteek. Ondoren, zapatak eta galtzerdiak kendu arazi ostean, eskuak bizkarrera lotu eta oin-azpiak ustaz jotzen hasi zitzaizkien. Hitz egin ezean, lhesaldiei buruzko legea aplikatuko ziotela mehatxu egin zioten eta guardia zibiletako batek pistola ere jarri zion buruan. Tiro egitekotan, kanpoan egiteko esan zion aldamentetik beste polizia batek. Lau bat orduz torturatu zuten. Handik lau bat egunera, bila joan zitzaizkien polizia etxera. Ez zuten etxean topatu, baina Felixi kuartelera itzultzeko agindua emateko eskatu zioten emazteari. Biharamunean joan zen, eta berriro ere, hitz egin ezean jo egingo zutela mehatxu egin zioten. Grebaren aldeko propaganda zabaltzea, presoei dirua ematea eta Elgoibarren euskara irakastea leporatzen zioten. Aldi horretan ez zuten jo, baina "etengabe" mehatxu egin zioten, eta azkenean, "aitorpen faltsua" sinatu zuten.

Torturapean egindako adierazpen haietan oinarrituta, 15.000 pezetako isuna ere jarri zioten gerora. Errekurtsoa aurkeztu eta isuna ordaintzeari uko egin zion Etxeberriak, eta modu horretan, kartzelara joatea saihestu ahal izan zuen, baina isuna ez zioten barkatu, harik eta Franco hil zen arte –Amnistia Legea aplikatu ze-



nean ahaztu ahal izan zuen isuna–. Giza Eskubideen Zuzendaritzak txostenean jasotakoaren arabera, "torturak gogorrak izan ziren, tortura psikologikoak barne", eta kuartelean egin zituen bi egonaldi haiek eta gero ere, Guardia Zibilak jarraitu zuen Etxeberria jazartzen.

Txostenean jaso dute "asaldura handiko giro politiko eta soziala" egon zela garai hartan eta Ordena Publikoko Indarren atxilotetak eta tratu txarrak "inoiz baino gogorragoak" izan zirela: "Polizien galdeketa tratu txarrak eta torturak oso ohikoak izan zirela, bereziki ETAko eta indarkeria baliatzen hasi ziren antzeko erakundeetako kideekin zerikusia zuten kasuetan, baina, errealitatean, jokaera horrek talde horien metodoak erabiltzen ez zituzten beste erakunde batzuetako militantei ere eragin zien".

45 urte joan dira ordutik, eta Etxeberriak lortu du bere tortura salaketa kontuan hartzea. Orain, nahiko luke indarkeria mota guztien biktimek aitorten bera jasotzea.

Lanbide Heziketa sustatzeko jardunaldiak antolatu dituzte

Elgoibarko Udalak Lanbide Heziketa sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu, IMH eta Mekarekin elkarlanean. Ikasle eta gurasoentzako jardunaldiak izango dira. Otsailaren 23an informazio saioa egingo dute, 19:00etatik aurrera, Meka Arreiture Institutua-Meka Lanbide Eskolako bilera-gelan. Martxotik aurrera, bestalde, atek irekitzeko eguna izango dute bai IMHn eta baita Mekan ere, bi zentroetako eskaintzak ezagutzeko.

Mekanizazioko titulazio ofiziala eskainiko du IMHk

Enpresek dituzten beharrei erantzuteko, mekanizazioko titulazio ofiziala eskainiko du IMHk. Enpresek langile kualifikatuak eskatzen dituzte, eta behar horri erantzun nahi dio ikastetxeak. Era berean, egungo langile askok ez daukate titulu ofizialik, eta horiek ere izango dute titulazio ofiziala eskuratzeko aukera. Martxoan abiatuko dute titulazio berria. Ikasketak egiteko Hobetuz fundazioak diru-laguntzak eskainiko ditu. Informazio gehiagorako 943 748 270 (Nora) telefonora deitu daiteke.

Sutea piztu zen astelehenean Carrocerias Strada enpresan



Sutea piztu zen asteleheneko 15:00ak aldean Carrocerias Strada (Carrocerias Elgoibarreras lehen) enpresan. Antza denez materialen batek su hartu zuen, eta Eibarko suhiltzaileek etorri behar izan zuten sua itzaltzera.

Autoen eta ibilgailuen salmenta, konponketa eta alokairua eskaintzen du enpresak. Suaren ondorioz, pisu bat beherago dagoen Neurri enpresako beharginek ere, badaezpada, argindarra moztu eta lanari laga behar izan zioten.

Porteo ergonomikoari buruzko hitzaldia bertan behera geratu da

Maitasunez hezi laktantzia taldeak haur-eramaile ergonomikoari buruzko hitzaldia antolatuta zeukan otsailaren 23rako, baina bertan behera geratu da, Ana Asperilla hizlariari arazoren bat suertatu zaiolako. Taldeko arduradunek jakinarazi dute maiatza aldera-edo saiatuko direla hitzaldia berriz antolatzen, baina momentuz ez dute data berririk zehaztu.

Gizon bat jipoitu dute tabernari bat babesteagatik

Gorbea tabernan gertatu zen erasoak joan zen asteazken iluntzean. Tabernariaren —emakumezkoa— kontra modu txarrean jokatzeko ari zen gizon bati kargu hartu zion momentu horretan tabernan afaltzen ari zen beste gizon batek eta momentuan lortu zuen tabernatik uxatzea, baina kanpora irten zenean, zain zeukan bestea.

Biktima saiatu zen kontra egiten, baina besteak segi egin zuen jotzen eta zauriak eragin zituzten. Tabernariak taberna barrutik entzun zituen zaratak eta berak deitu zien larrialdi zerbitzueta-koei. Biktima Mendaroko Ospitalera eraman zuten, eta 24 orduz han izan zuten, zaintzapean. BARREnek jakin izan duenez, biktimak —J.M.A. gizon bati elgoibartarrak— salaketa jarria du Eibarren Ertzain-etxean.

UEUren udaberriko ikastaroak egiteko diru-laguntzak

Elgoibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie Udako Euskal Unibertsitateak eskainiko dituen ikastaroak egiten dituzten elgoibartarrei. Udalak matrikularen kostu osoa ordainduko die Elgoibarko ikasleei, langabeei, pentsiodunei eta jubilatuei. Horrez gain, matrikularen erdia ordainduko die lanean diharduten pertsoneri. Informazio gehiago Elgoibarko Udalaren Euskara sailean: 943 744 366 / euskara@elgoibar.eus.

UEUk udaberriko antolatu dituen ikastaroei buruzko informazio gehiago eskuratzeko 946 790 546 telefono zenbakira deitu edo mezu bat bidal daiteke idazkaritza@ueu.eus helbidera.



Belen eta Mari Jose Elorza ahizpak.

Karkizano, ia ehun urteko historia

Ia 100 urteko historia du Karkizano mertzeriak. Manuel Arrieta eta Josefa Etxabek sortu zuten, eta haien biloba Belen eta Mari Jose Elorzak eusten diote gaur familia-negoziolari. Irailaren 29an, San Migel egunez, 95 urte beteko ditu dendak, eta iraganaz, orainaz eta etorkizunaz aritu gara mostradore atzean bizi oso bat eman duten Elorza ahizpekin.

- AINARA ARGOITIA -

Denda izan dute etxea Elorza-Arrieta ahizpek, Karkizanoko andrek. Bizitza oso bat egin dute mostradore atzean. Hirugarren belaunaldia osatzen dute, eta komertzio txiki bati eusteko garairik zailenean tokatu zaie beharbada aurrera egitea, globalizazioaren aroan, baina hala ere, asmatu dute merkatuan euren lekua egiten. Irailaren 29an, San Migel egunez, 95 urte beteko ditu Karkizanok, eta lbarrenea okindegiko lantegiarekin batera, Elgoibarko saltoki zaharrena da. Erretiroa hartzeko bi urte falta ditu, baina, Mari Jose Elorzak, bi ahizpetan gazteenak, eta, pena duten arren, mendeurrena bete aurretik itxiko dute horrenbeste eman dien saltokia. "Etxean ez daukagu erreleborik".

Manuel Arrieta eta Josefa Etxabe senar-emazteek sortu zuten dendak. Manuel eskopetagintzan ibilia zen Eibarren, baina dendak sortzea erabaki zutenean, Werthein josteko makinak saltzen eta konpontzen hasi zen, eskopetagintza lagata. Bere izena eman zion dendari ere. Baina dendaren bihotz eta burua emaztea zuen: Josefa Etxabe, Karkizano baserriko alaba, eta horregaitik-edo, elgoibartarrek Karkizano deitu izan diote beti. Bilobek ere, Belenek eta Mari Josek, izen hori duen kartela esegi zuten atarian, 1978an, dendak berri zutenean. Josefak eramaten zuten dendako

jira dena, harik eta alabak koskortu zitzaizkion arte. Hiru alaba izan zituzten Arrieta-Etxabe senar-emazteek: Maria, Teresa eta Juanita, eta hirurek jarraitu zuten amaren arrastoa. "Izeba Maria oso jostun ona zen, eta 12 urterekin, josten eta bordatzen irakasten zien herriko emakumeei josteko makinarekin. Bai, bai, 12 urterekin. Bizitza halakoxea zen orduan!", esan du Belenek.

Garai hartan, gaur dendaren atzeko partea den horretan zuten sukaldea Arrieta-Etxabetarrek, eta emakume asko batzen ziren han lanerako. "Dena bat zen hau. Sukaldean mahai luze bat geneukan eta hantxe moztzen zituzten oihalak, eta hantxe aritzen ziren josten. Werthein etxeko hiru-lau josteko makina ere bagenituen", gehitu du. Teresak, hiru ahizpetan "isilenak", erropak lisatzen egiten zuten, eta Juanitak -Belen eta Mari Joseren amak- edozerri ekiten zion. Astean behin, esaterako, Bilbora joaten zen trenaz, material bila, eta bueltako bidaiak Bilbon frantsesa irakasten zuten emakume batekin egiten zuten. "Gure aldean emakume arreratuak irakaste hura eta haretzek eman zion gure amari umeentzako pardelak egiteko plastikozko ereduak ere. Handik sortu zuten gero berak patroia, eta milaka pardel egin zituzten hemen. Garbitu eta erabiltzeko pardelak ziren, bistan da, baina sinestu

Dozenaka emakume batzen ziren dendan garai batean, josteko, eta gerora, jostungintzako eskolak ere eman izan dituzte

eزینهكو اurrerapena izan zen!", dio Belenek.

Sukalde zahar hartan hazi ziren Belen eta Mari Jose ahizpak eta gainerako neba-arrebak, oihal eta josteko makina artean. "Dena egiten genuen sukaldean. Gure aita 12:00etan etortzen zen etxera, eta 12:30ean bazkaltzen genuen. Bazkalorduan, baina, jendearen sartu-irten handia izaten zen hemen. Elgoibarren jostun asko zeuden orduan, eta beti behar izaten zuten zerbaite: botoia ez bazen, haria. Eta, jakina, seme-alabak bidaltzen zituzten dendara enkarguekin, eskolatik irteten ziren orduan. Izugarri ernegarazten zuen gure aita horrek, bazkalordua ez errespetatzeak, baina hala zen bizimodua". Ezaguna zen Karkizanoko sukalde zaharra, denda bera bezain ezaguna. Elgoibarko etxe askotan, domeketa jatekoa izaten ziren garbantzuak, baina Karkizanoko sukaldean eguenetan prestatzen zituzten, baserrietatik plazara zetozen emakumeei salda eskaintzeko. "Lasturtik-eta etortzen ziren astoetan, urrutitik, eta haietaz beti izaten zen katilukada bat gurean". Eman egin dute, baina jaso ere bai, "asko" "Aurrekoan etxean egindako sanblasak ekarri zizkigun bezero batek, eta ekartzen dizkigute kroketak, pipar beteak eta abar ere".

ESKULAN UGARIA

Dena eskuz egiten zen garaia ezagutu zuten: galtzontziloak, oherako arropak, bururako kapelina... Hil-jantziak ere josten zituen garai batean Belen eta Mari Joseren amak, nagusi zein umeentzako, eta berak janzten zituen gero hildakoak. "Denetik egiten zen". Mota guztietako patrioiak dituzte dendan oraindik, kartoizko

kaxetan pilatuta. Jostungintzaren museoa ere bada Karkizano, mundu honetaz guk beste dakienarentzat. Ehunka kaxa daude bata bestearen gainean, eta milaka batuketa eta eragiketa haietan idatzita. "Kalkuluak buruz egin zaleak gara. Burua ondo mantentzeko lagun txarrak dira gaur egungo trepetak". Bitxikerien artean, 90 urte baino gehiagoko botoiak ere ekarri ditu Mari Josek. "Gure amamari saldu

zizkioten izugarri salduko zituela esanez, baina hor daude denak. Hala esan zigun hil aurretik: Gorde itzazue botoiak, zer egin behar ez den garbi izan dezazuen beti", ekarri du gogora.

Zeren beharra zegoen, huraxe sortu eta josten zuten. "Antonia Arane, Izagirre dentistaren amamak, eta bere alaba Mari Luzek zer ez ote zuten josi orduan hemen! Eskolako umeek Odeoi zaharrean egiten zuten jaialdirako arropak eta balleterako jantziak ere eurek josten zituzten". Dozenatik gora emakume batzen ziren Karkizanon josteko, eta horren adibide da aldizkari honek berak argitaratutako *Erretratu Zaharrak* liburuan ageri den argazkia. Jo-



Goiko argazkian: Jose Mari Mujika, Garbiñe Mujika eta Belen Elorza, denda atarian. Behoko argazkia, berriz, Manuel Arrieta eta Joseba Etxaberen urrezko ezteietako argazkia da. Goiko lerroan: Belen Elorza, Ladislao Elorza, Juanita Arrieta, Manuel Mari Elorza, Jose Mari Mujika, abadea (izenez ezezaguna), Manuel Arrieta, Maria Jesus Mujika, Teresa Arrieta, Maria Arrieta eta Jose Mari Mujika. Aurreko lerroan: Amaia Mujika, Arantxa Mujika, Josefa Etxabe, Ladis Elorza, Javier Mujika, Mari Jose Elorza eta Garbiñe Mujika.

sefa Badiola, Maria Iriondo, Josefa Urain, Josefa Bastida, Dioni Aranberri, Emilia Etxeberria, Teresa Osoro, Asuncion Gabilondo, Maria Gabilondo, Luisa Ibarrenea... emakumeek janzten zituzten orduan elgoibartarrak. Sortzen zuten beharrei erantzuteko, baina momentuko premiei erantzun ahala, begia biharko premietan jartzera derrigorluta zeuden. "Praka bakeroen merkaturatzea izugarria izango zela zabaldu zen, modernoetan modernoena izango zela bakero oihala, eta, jakina, ekarri zuten dendara ere Rock markako kaxa bete prakak. Bada, kaxa hura hortxe, harlauza horren gainean, egon zen urteetan, zabaldu ere egin gabe. Eta pentsa gero zer izan diren baina...", dio Belenek.

“Honi nola esaten
diozu? Badu izenik?”.

Hori da dendari
txikion egunerokoa.

Lana ematen digute, eta
gero Interneten erosi”

Hasieran, oihalak saltzen zituzten bereziki Karkizanon, eta geroago ekin zioten mertzeriako gaiak-eta saltzeari. Jantzigintzak markatu zuen gero Karkizanoren historian mugarrietako bat, Belen eta Mari Jose ahizpen esanetan. Sasoi hartantxe erosi zuten, hain justu ere, Arrieta denda izan zena Maria, Teresa eta Juanita ahizpek –Serenoren denda zena, gaur Jairo Berbelek argazkilaritza denda daukan lokala–. Maria Arrieta jarri zen han, jantzigintzan, eta Juanita gelditu zen Karkizanon, gurasoekin. Oihaletan espezialdutako denda zen bereziki Karkizano, baina ondoan bazuen beste lokaltxo bat errentan hartuta –gaur ortopedia dena– eta han izaten zituzten mertzeriako gaiak. Baina egunetik egunera, eta jantzigintzak indarra hartu ahala, oihalen salmenta behera egiten hasi zen, eta eguneratu beharraz ohartarazi zion Belenek amari. “Bordatzeko makina bati begira egon nintzela esan nion. Oihalena apurka-apurka alboratzen hasi behar genuela. Ez zitzaion batere ondo iruditu”. Bazituzten dendan bordatzen aritzen ziren langileak, baina bide hori zabaltzeko automatizazioa ezinbestekoa zitzaien. Eta asmatu zuten. Gaur egun, bordatze lan asko egiten ditu Mari Josek, herrirako zein kanporako.

DENDA TXIKIEN EGUNEROKOA

Argi dute beharretara egokitzen asmatzea dela hemen kontua, eta gaur inoiz baino gehiago, besteek eskaintzen ez duten horretan espezializatzea eta trebatzea. “Gu asko mugitu gara, baina erretiroa hartzeko gaudenean ezin ba gauza berriekin hasi. Bestela nik argi daukat mertzeri-gaiak estimazioa dutela”, esan du Belenek. Astegun eta jaiegun egin dute lan urte askotan,

zenbatzekoak baino ordu gehiagoz egun askotan. “Bazkalostean, 14:30erako dendan egoten ginen gu sasoi batean. Ikasi dugu, baina. Orain garbi daukat: zabaldu, gero eta beranduago, eta itxi, beti orduan”. Lan eginda lortu dute erreferentzialtasuna, hemen eta inguruko herrietan. Baita bezero on asko ere bai. Batzuekin, baserrietakoekin, trukea ere mantentzen dute oraindik. “Sasoian sa-

soian duten jeneroa ekartzen didate atera, eta behar dutena eramant. Nork bere kontua dauka”, azaldu du Mari Josek. Baina bestelakoak ere badira. Internetek egiten die min. “Galdezka etortzen zaizkigu: ‘Honi nola esaten diozu? Badu izen jakinik?’ Hori da dendari txikion egunerokoa orain. Lana ematen digute, eta gero Interneten erosi. Horrek amorrarazten nau ni. Interneten erosi behar dutela erabakita baldin badute ez diezagutela guri denbora kendu”, dio Belenek. “Edo etortzen zaizkizu Interneten erositako arropa batekin, soluzio eske. Jakitzen dute eurek ere zertan dabil-tzan, eta gezurretan aritzen zaizkizu, halako lagunak oparitu diola esanez-eta. Baina gu txakur zaharrak gara. Ikasketarik gabeko psikologoak”, gehitu du Mari Josek. “Eta gustukua beste nonbait ikusiz gero, erosi daiteke jakina, geuk ere erosi ditugulako dendan bertan ditugunak kanpoan, bereziak iruditu, baina behintzat ez gero gezurrik esan. Izan zintzoa”.

Horren kontra, borroka galdua dutela jakin badakite, baina hausnarketarako gaia jarri dute. “Auzoko denda zer da, igandetan ogia erosteko bakarrik? Supermerkatuan fideoak erostea ahaztu zaizunerako bakarrik? Ez, horrela ezin dira dendak mantendu. Zer gertatuko da ixten direnean? Internetez eskatuko dituzu fideoak? Guk geuk mantendu behar ditugu dendak, benetan interesatzen bazaizkigu”, esan du Belenek. Gure kontsumo ohituren

gainen gogoeta egin beharko genukeela nabarmendu dute. San Blas eguna da, eta mahai gainean kolore guztietako kordelak dituzte. Eta etengabe datoz kordel bila herritarrek. “Horrek uste duzu dirua lagatzen digula? Lana bai, kordelak moztu eta prestatzen. Baina guk egin ezean zeinek egingo du? Guk egin ezean, akabo usadioa!”.

Tente, ezkerretik eskumara: Josefa Badiola eta Maria Iriondo. Bigarren ilaran: Josefa Urain, Josefa Bastida eta Dioni Aranberri. Eserita: Emilia Etxeberria ‘Seroria’, Teresa Osoro, Asuncion Gabilondo, Maria Gabilondo, Luisa Ibarrenea eta Juanita Etxabe. Lurrean eserita: Juanita Arrieta.






Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Erretxindiko zubiko espaloiak zuloak ditu: “Erretxindi auzoan, autopista gaineko zubiak, batxeak eta zuloak ditu, eta toki batzuetan porlan barruko burniak ere agerian daude. Hanka burni horretan kateatu eta min hartzeko arriskua dago”. Josu Arraiz Hirigintza Saileko zinegotziak esan du zubi hori berez Foru Aldundiaren konpetentzia dela, baina kontuan hartuko dutela eta konponduko dutela.



Kalamua kalean espaloi gainean aparkatzen daiteke: “Kalamua kalean alde batean bakarrik aparkatu daiteke, baina jende askok beste aldeko espaloi gainean ere uzten du autoa. Traba handia egiten dute auto horiek, eta oinezkoak errepidera jaitsi behar izaten gara, pasatzeko lekurik ez dugulako izaten. Espaloi gainean zerbait jarri beharko litzateke, jendeak ez aparkatzeko. Oinezkoen bidea errespetatu egin behar da”.



Kiroldegi aurreko zebra bidean piboteak jarri dituzte autoak ez aparkatzeko: “Txalo bat eman nahi diogu Udalari, bizilagunen kexak aintzat hartu dituelako. Jendeak zebra bidean aparkatzen zuen, eta oinezkoak errepidera irten behar izaten genuen. BARRENen argitaratu genuen kexa, eta soluzioa eman diote arazoari, beraz, eskerrik asko”.



Pilota Eguna: “Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean ospatutako pilota eguna antolatzen lagundu duten Elgoibarko Pilota eskolako ardura-dunei. Eskerrik beroenak, era berean, parte hartu duten neska-mutilei. Datorren urtean ere laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat”.



Herriko industriguneak seinalizatu dituzte: “Kartel berriak jarri dituzte herriko industriguneak non dauden zehaztuz. Txalo bat eman nahi nioke Udalari”.



Hogeita bost lagun batu ziren martitzenean Inma Mugertzaren azalpenak entzuteko.

Herriko bitxikeria geologikoak azalera

Elgoibarko Udalak antolatuta GeoElgoibar izeneko ibilbidea eskaini zuen martitzenean Inma Mugertza geologoak herriko kaleetan zehar, hainbat eta hainbat txokotan ezkututzen diren bitxikeria geologikoak azalertzeko. Herriko lur eta hormetako harri askotan fosilak eta landareak aurkitu daitezke atentzio apur bat jarriz gero. Harri horietako gehienak Markinako, Lasturko eta Ereñoeko harrobietatik ekarritako harriak dira, eta agerian dituzten marrak eta koloreak orain dela milioika urte ur azpian bizi ziren era guztietako bizidunen fosilak dira. Bi orduko ibilaldia eskaini zuen Mugertzak eta hogeitabost lagunek hartu zuten parte. Ibilbidea berriz egingo dute datorren hilean.

- AINHOA ANDONEGI -

○ rain dela 65-110 milioi urte, Kretazeoan, Euskal Herria itsaso azpian zegoen. Trebiño kostaldea zen eta Dinosauruak hortxe bizi ziren. Elgoibar ere itsaso azpian zegoen. Klima tropikala zen, itsasoak 27 gradu inguruko tenperatura zuen, eta bizitza handia zegoen ur horretan. Animalia eta landare mota asko bizi ziren. Horiek hiltzean hondoratu egiten ziren, eta sedimentazioaren ondorioz, fosilak sortzen ziren haitzetan. Sumendiak ere baziren itsaso horretan, horregatik gure mendietako batzuek jatorri bolkanikoa dute. Karakate eta Kalamua, esate baterako, jatorri magmatikoa duten harri bolkanikoz osatuta daude. Gure ingurunean hiru harri mota ditugu, bereziki: magmatikoak, sedimentarioak eta metamorfikoak. Harri bolkanikoak tenperatura oso altuak izaten zituzten, eta ondorioz, harri mota horietan sekula ez dugu fosilik aurkituko. Fosilak harri sedimentarioetan aurkitzen dira. Adibidez, flysh-a harri sedimentarioa da, eta hor fosil asko aurki daitezke. Elgoibarraren ere badaukagu flysh-a, flysh beltza, hain zuzen ere. Altzolan oso garbi ikusten da flysh beltza.

Urteak aurrera joan ahala lurra eremua irabazi zion itsasoari, eta plaka tektonikoen mugimenduen ondorioz, Pirinioak sortu ziren. Harriak sortzearekin batera, harrobiak ustiatzen hasi ziren. Gure inguruan hiru harrobi garrantzitsu ditugu: Markina, Lastur eta Ereño. Markinako harrobitik kareharria irreten da bereziki, Markina Beltza izenez ezagutzen den harria. Harri hori bera Donostiako Zurriola pasealekuan, Milango katedralean, El Cairoko jauregian edota La Mecako Kaaban ere aurkitzen da. Ereñoeko harri gorria, bestalde, Vatikanon, New Yorken edota Iruña Veleiako arrasto erromani-koetan aurkitu dute.

Elgoibarko kaleetan, portaletan, fatxadetan edota hormetan ikusten diren harri asko harrobi horietatik ekarritakoak badira ere, beste jatorri batzuetako harri motak ere baditugu; esate baterako, era guztietako granitoak. Jende gehienak harri hutsa ikusten duen lekuan Inma Mugertza geologoak aberastasuna ikusten du. Bitxikeria geologiko horietako batzuk azalera dizkigu.


Frontoia: "Frontoiaren hormaren atzekaldean harri mota desberdinak daude, eta horietako batzuk harri bolkanikoak dira. Normalean gertuko harriak erabiltzen zituzten eraikuntzarako. Harri biribildu hauek errekatik hartutakoak izango dira seguruenik. Harri hau basaltoa da". Ertzetako harri bloke handiak Markinako harrobitik ekarritakoak izango direla uste du Inmak.



Sahatzu harategia: "Koralak eta bibalboak ditugu Sahatzu harategiko horman. Bibalboak almeja edo ostra moduko animaliak dira, hau da, bi kontxa bezala zabaltzen direnak. Bihotz forman ikusten da horma honetan. Biribil txiki batzuk ere ikusten dira. Itsas hondoa bizi ziren zizareek utzitako serpulidoak (tutu antzeko egiturak) ikus daitezke. Harria mozterakoan tutu horiek zeharka moztu dira, eta biribilak ikusten dira horman".



Santa Ana kaleko estankoa zegoen lokala: "Horma honetan ikusten diren adarrak alga batenak edo belaki batenak izan daitezke. Tamaina handiko izakia izango zen hau. Lau adar ikus daitezke eta barruan ostoen antzeko haritxo antzeko marrak erakusten dituzte ardatz bati lotuak. Lasturko harria da hau ere, kolore gorri horregatik Zezenaren odola izenez ezagutzen da".



Salbatorea, Santa Klarako errotonda gainean:

"Santa Klarako errotonda gainean, Salbatorea dagoen lekuan, lurreko baldosa batek oinatz oso interesgarriak ezkutatzen ditu. Karramarro batek hondartzan uzten dituen arrastoen antzeko markak dira, beraz, animalia hark hankatxoak izan behar zituen. Oinatz horiek uretako buztinarekin bete egin dira, eta harri bihurtzerakoan molde moduko bat sortu da. Fosil hau *ichnofosil* mota bat da, *scolicia* izenez ezagutzen dena. Elgoibarren daukagun harribitxia da hau".

Bire elektragailuak denda:

"Bire elektragailuak dendaren horman daukagu beste bitxikeria bat. Manganoso oxidoa da, pirolusita minerala. Harriaren pitzadurretan kristalatu egiten da, eta landare formak hartzen ditu. Eskuz marraztutako irudiak direla ematen du, baina hariarenak berarenak dira. Kolore beltza dela eta, kobazuloetako pinturretan erabili izan zen".



C.D. Elgoibarren mendeurrenako martxa estreinatu dute

Elgoibarko Herriko Antzokia bete egin zuen domekan Elgoibarko Udal Musika Bandak. Berezia izan zen kontzertua: C.D. Elgoibarren mendeurrena ospatzeko propio sortutako martxa estreinatu zuten. German Meabebasterretxea bertsolariak idatzi du letra, eta Udal Musika Bandako zuzendari Txomin Mujikak egokitu du bandarako. Kale Kantarien taldeko kideen eta Parrokiako Abesbatzaren laguntza izan zuen Udal Musika Bandak abestiaren estreinaldian. Birritan jo zuten Mendeurrenako Martxa, eta ikusleek txalo zaparrada handia eskaini zieten musikariei. BARRREnek bideoan jaso zuen abestia eta www.barren.eus webgunean daukazue ikusi eta entzuteko. Arrate Irratian, berriz, datorren domekan, otsailaren 19an eskainiko dute.

Ricardo Garateri omenaldia

Ricardo Garate zena ere gogoan izan zuten martxaren estreinaldian. Udal Musika Bandako zuzendari Txomin Mujikak azaldu zuen Ricardo Garate berak eskatu ziola Mendeurrenerako martxa sortzeko. Mendeurren batzordearen izenean berba egin zuen Iñaki Kondek ere berba politak izan zituen Garaterentzat. Berba horien ostean, Ricardo Garate zenaren ama, alarguna eta semeari antzetzoki gainera igotzeko eskatu zien Kondek, eta lora sorta bana eman zien. Era berean, German Meabebasterretxeak Ricardo Garateren omenez idatzitako bertsoak abestu zituzten Kale Kantariak eta Parrokiako Koruak.



Ricardo Garateren semea, ama eta alarguna igo ziren ziren oholtzara.




Intza Bereziartua eta Sare Iriondorentzat izan da Publikoaren Saria Gaztelekuko Instagram lehiaketan



Sara Iriondok eta Intza Bereziartuak atera zuten argazkiak jaso du Publikoaren Saria Elgoibarko Gaztelekuak Udalarekin lankidetzan antolatutako Juan Mugertza Nazioarteko Krosa Instagram lehiaketan. Lehiaketara aurkeztutako argazkiak astebetean egon dira ikusgai Gaztelekuan, eta gustukoeneri botoa emateko aukera izan dute nerabeek. Irabazleek 100 euro jaso dituzte.

'Eurria' antzezlanaren domekan, Herriko Antzokian

Markeliñe Teatroak *Eurria* antzezlanaren taularatuko du domekan, Herriko Antzokian. Maite dugun norbait jadanik ez dagoenean gertatzen zaigunari buruz hitz egiten du. Eta zerbait aldatu dela ulertzeko eta onartzeko behar dugun denbora guztiari buruz. 16:30ean hasiko da saioa.



'Turandot' opera eskainiko dute gaur Herriko Antzokian, formato diferituan

Kultura Sailak aurrez grabaturiko operak, balletak, errezitaldiak eta ikuskizun handiak zine pantaila handian eskaintzearen aldeko apustua egin du, eta *Turandot* opera izango da formato diferituan eskainiko duen lehen ikuskizuna. Handa Opera entzutetsuak Sydney (Australia) eskaini zuen bertsio ikusgarria da Herriko Antzokian eskainiko dutena. Chen Shi-Zheng zuzendariaren aginduetara 78 lagunek parte hartu zuten Txina moderno bat irudikatzen duen opera honetan. Dan Potra disenatzaileak eszenografia ikusgarria prestatu zuen ikuskizun honetarako, tartean ahotik sua botatzen duen eta Txinako Harresi Handiaren itxura hartzen duen isatsa dituen 60 metroko herensugea. 20:30ean hasiko da saioa.



Pucciniren lan klasikoa da *Turandot*. Adituen arabera, inoiz idatzi den operarik onenetarikoak da. Melodia disdiratsuak ditu, istorio liluragarria, akzioa, drama... Eta horrez gain, Riccardo Massik abesten duen Nessun Dorma kantaren bertsioa.

'Aker larrea' izeneko kontzertua eskainiko du Sinuosek gaur zortzi

Sinuose taldeak kontzertua eskainiko du aurten ere inauterietan. Orain dela 21 urte inguru hasi ziren Sinuose taldeko Iban Urizar eta Patxi Zabaleta inauterietan kontzertua eskaintzen, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. *Aker larrea* izenburupean irtengo dira aurten oholtzara. Urtero kontzertu desberdina eskaintzeko ahalegina egiten dute, eta aurtengoa ere berezia izango da. Datorren barixakuan izango da kontzertua, otsailaren 24an, 23:00etatik aurrera, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera doan izango da.

Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea

Liderrak diren enpresek fabrikazio aurreratuaren bidea erakustea enpresa txiki eta ertainei.

Hori lankidetzeta da.

ORAININDUSTRI4.0
Laugarren Industria-iraultzarako prest

ORAIN EKONOMIA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentu Funtzionarioak



ORAIN
GIPUZKOA

Kromo eta bilduma propioa atera ditu C.D. Elgoibarrek

C.D. Elgoibarrek 2016-2017 denboraldiko talde guztietako jokalariei eta teknikoen argazkiekin osatzeko kromo-album ofiziala atera du, Cromogal enpresarekin elkarlanean. Herriko hiru gozo-dendatan (Amagoia, Sugar eta Caramel) eta Mintxetako tabernan salduko dituzte kromoak, euro batean. Kromo zorro bakoitzak sei kromo ekarriko ditu. Orain dela gutxira arte, pertsonalizatutako kromo-albuma izatea lehen Mailako futbol-taldeen eskura bakarrik zegoen luxua zela adierazi dute klubetik. "Denboraldi honetan, baina, Elgoibarko ikastetxe, plaza eta kaleetan izaten diren kromo-trukeetako benetako protagonistak ez dira Ligako, Premier-eko edo Mundialeko idoloak izango; CD. Elgoibarreko jokalariek baiziki". Gaur (otsailak 17) banatuko dituzte kromo-albumak Kalegoen Plazan, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Futbol Eskolako



neska-mutilek eta alebin, infantil, eta kadete mailetako jokalariek pertsonalizatutako albumak izango dituzte, hau da, albumaren azalean euren argazkia jokoango da.

Pilota Eguneko finalak jokatu zituzten Kalegoen Plazan



Elgoibar Ikastolak gaztetxoaren artean pilota, eta oro har, kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz antolatzen duen Pilota Egunaren 20. edizioa egin zuten, aurreko zapatuan, Kalegoen Plazako frontoian. 2005 eta 2010 urteen artean jaiotako 48 neska-mutilek dozena bat partida jokatu zituzten. Amaieran, Lagunak Pilota Eskolako bi kidek, Igor Txurrukak eta Ioritz Idigorasek, buruz buruko erakustaldi partida jokatu zuten. Sari bana-keta ekitaldian, azkenik, Aspe enpresako pilotari profesionala den Aitor Mendizabal "Mendizabal III"ren (Antzuola, 1989) laguntza izan zuten.

Emakumezkoen eta gizonezkoen pala txapelketetako izenemateak

Martxoaren 27tik ekainaren 23ra bitartean jokatuko dira emakumezkoen 6. pala txapelketa eta gizonezkoen 2. pala Txapelketa. Dagoeneko zabalik dago txapelketa batean zein bestean izena emateko epea. Jai-Alai tabernan eman behar da izena. Lagunak Pilota Eskolak antolatzen ditu txapelketak, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin.

Arbilera eta Xoxotera mendi irteerak, domekan



Elgoibarko eta Mendaroko umeek mendiaz gozatzeko aukera izango dute domekan, otsailaren 19an. Morkaiko mendi taldeak Xoxotera mendi irteera antolatu du Herri Eskola eta Elgoibar Ikastolarekin elkarlanean. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira 9:30ean, eta autoz igoko dira Aittolako aparkalekuraino. Handik, joan-etorrian, zortzi kilometroko ibilbidea osatuko dute. Bestetik, Mendaroko Arno Guraso Elkarteak, Lastur gainean dagoen Arbil (443 metro) mendi antolatu du irteera. 9:30ean batuko dira Ikastola ondoko aparkalekuan, eta egun erdiko txangoa egingo dute, lau bat ordukoa.

Gaur da izena emateko azken eguna. Izena emateko mezua bidali arnomendiage@gmail.com helbidera, jokoango diren izen-abizenak, haurren ikasturte-maila eta telefono zenbakia adieraziz.

Jose Luis Larrañaga gailendu da Mekatar Iriondo Xake Txapelketan



4 O xakelarik hartu dute parte V. Mekatar-Iriondo Xake Txapelketan, eta lau hila- labeteko lehiaren ostean, barixakuan jokatu zituzten finalak Iriondo tabernan. Txapelketa paretsua egin eta gero ailegatu ziren finalera Mikel Leon eta Jose Luis Larrañaga, 13 garaipen, hiru berdinketa eta porrot bakar bat jaso gabe. Jose Luis Larrañagak lortu zuen garaipena, Mekatar-Iriondo Xake Txapelketan lortzen duen hirugarrena. Alabaina, Mikel Leonek garaipena garesti jarri zion. Ia bi orduko partidaren ostean, berdinduta amaitu zuten. Berdinketa hausteko partida xake-azkarreko erritmoan jokatu zuten, hau da, jokalariek bakoitzak 15 minutu eduki zituen jokaldiak garatzeko. Juan Manuel Navarrok eta Oscar Diezek jokatu zuten hirugarren eta lau- garren postuak erabakitzeo partida, eta Navarro izan zen nagusi. Kopa txapelketan, berriz, Justo Arriola gailendu zen.

Sanloko jubenil eta kadete mailako lau talde lehiatuko dira Euskal Ligako bigarren fasean



Sanloko jubeniletako eta kadeteetako neska eta mutilen lau taldek jokatu dute aurten Euskal Ligako bigarren fasea. Lorpen handia dela azaldu dute eskubaloitako taldeko arduradunek eta urte askoren ondoren lortu dutela "horrelako emaitza biribila". Jubeniletako nesken eta mutilen taldeek, Tecnifuelle eta Beristain Banaketak, hurrenez hurren, zuzenean lortu zuten Euskal Ligako bigarren fasea jokatzeko sailkapena. Aldiz, kadete mailako Urkunde eta Casa Astigarraga taldeek sailkapen faseak jokatu behar izan zituzten joan den asteburuan. Casa Astigarragako neskek Elgoibarren jokatu zuten sektorea, eta hirutik hiru partida irabazita, aise lortu zuten sailkapena. Urkunde Elgoibar taldeko mutilek Tolosan jokatu zuten Euskal Ligako 2. fasean izateko sektorea, eta hirutik bi partida irabazita lortu zuten sailkapena.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 0 – Oiartzun 0 (Oho. erreg.)
 Elgoibar 2 – Axular 1 (1. erreg.)
 Elgoibar 4 – Ilintxa 3 (Oho. jub.)
 Eibar 2 – Elgoibar 2 (Oho. kad.)
 Elgoibar 5 – Zarautz A 4 (Inf. 1. maila)
 Elgoibar 2 – Real Union 3 (Inf. Txiki)
 Elgoibar 4 – Arrasate 6 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 2 – Santurtzi 5 (Nazional B)

SASKIBALOA

Viento Sur Elgoibar 68 – Ganbara 50

ESKUBALOA

Beti Onak 26 – Alcorta F.G. 27 (Senior giz.)
 Lauko 21 – Urdaibai 19 (Senior emak.)
 Urnieta 25 – Pizzeria Salento 22 (Senior giz.)
 Beristain 33 – Egia 22 (Jub. mut.)
 Corazonistas 24 – Deca 35 (Jub. mut.)
 Tecnifuelle 21 – Bera Bera 22 (Jub. neska.)
 Deca 23 – Pulpo 26 (Kad. mut.)
 Bankoa 29 – Egia 23 (Kad. mut.)
 Ereintza 26 – Pneumax 22 (Inf. neska.)
 Bacalaos Alkorta 23 – Orio 24 (Inf. neska.)
 Modeltek 18 – Leizaran 17 (Inf. neska.)
 Murgil 28 – Tolosa 18 (Inf. mut.)
 Saieko 20 – H. Txarriduna 21 (Inf. mut.)
 C. Astigarraga 31 – Bera Bera 26 (Kad. neska.)
 San Adrian 22 – C. Astigarraga 34 (Kad. neska.)
 C. Astigarraga 38 – Egia 19 (Kad. neska.)
 Barakaldo 17 – Urkunde 34 (Kad. mut.)
 Urkunde 18 – Tolosa 21 (Kad. mut.)
 Urkunde 25 – Aloña Mendi 19 (JKad. mut.)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 19
 12:30 Concepto Egile – Segorbe (Nazional B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 18
 12:30 Elgoibar – Lagun Onak (Oho. kad.)
 16:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Jub. 1. maila)
 Domeka, 19
 10:00 Elgoibar – Zarautz (Benj.)
 16:00 Elgoibar – Kostkas (Infantil Txiki)

ESKUBALOA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 18
 10:00 Pneumax – Aloña (Inf. neska.)
 11:30 Dario – Bera Bera (Kad. neska.)
 16:00 Beristain – Ereintza (Jub. mt.)
 17:45 Tecnifuelle – Aiala (Jub. neska.)
 19:30 Alcorta F.G. – Eibar (Senior giz.)
 Domeka, 19
 10:00 Txarriduna – Bidasoa (Inf. mt.)
 11:30 Bankoa – Egia (Kad. mut.)

LANA.....
Eskaerak

Lanerako prest nago. Esperientzia handia daukat garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen.

☎ 616 554 004 / 943 744 481

Asteburuetan lan egiteko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 631 212 497

11:00etatik 17:00etarako tartean lan egiteko prest nago. ☎ 632 564 679

Garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka.

☎ 603 237 932

Lan bila nabil. ☎ 632 639 159

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna ere bai. Esperientzia handia daukat.

☎ 612 216 458 / 602 193 095

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Interna ere bai. ☎ 631 418 103

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 600 319 516

Jatetxeetan platerak garbitzen lan egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 616 328 060

Adinekoak zainduko nituzke asteburuetan. ☎ 631 562 461

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka. ☎ 602 047 812

Adinekoak zainduko nituzke. Geriatria laguntzailea naiz. Ordutegi malgutasun handia. ☎ 646 931 162

Garraioetan lan egiteko prest nago. Gidabaimena daukat.

☎ 684 093 993

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 684 318 696

Adinekoak zainduko nituzke.

☎ 635 005 536

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 631 343 232

Etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 626 435 491

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest nago.

☎ 636 882 838

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna ere bai.

☎ 649 044 223

Adinekoak nahiz umeak zaintzen edota etxeak, lokalak edo beste edozein gune

garbitzen egingo nuke lan. Orduka nahiz lanaldi osoz. ☎ 631 679 091

Adinekoak zaindu edo sukaldari lanak egiteko prest nago. Ordutegi malgua.

☎ 657 773 138 (Julia)

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 688 861 654

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 631 271 595

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 664 225 040

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 653 156 403

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 612 218 594

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 632 737 903

GARAJEAK.....

Garaje handi eta itxia alokatzen da Urazandin. Ate automatikoa dauka, eta kallean bertan dago.

☎ 661 151 803

Garaje marraduna salgai San Roken (Pista Beltzaren azpian).

☎ 670 654 820

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 631 212 497

Pisua edo logela bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 684 093 993

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 622 162 798

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 688 723 121

BESTELAKOAK.....

Zarautz eta Elgoibar arteko joan-etorria auto berean egiteko pertsona baten bila nabil.

☎ 653 497 999 (Susana)

Zubi Ondo elkarteko bazkietza kuota saltzen dut.

☎ 628 253 046



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Etxea errentan hartuta duen gure portaleko bizilagun batek mugitzeko arazoak ditu, eta jakin nahiko nuke errentari horrek arrapala bat eraikitzeke eska diezaiokeen komunitari ala ez.

Legeak ezartzen du ezinbestekoa dela oztupo arkitektonikoak kentzeko obrak egitea, baina legea alde izanda ere, errentari batek sekula ezin du komunitatearen kontra zuzenean egin.

Legeak dio era horretako obra bat exijitzeko, pertsona horrek komunitateko etxe baten edo lokal baten jabe izan behar duela eta jabe hori edo etxe horretan bertan bizi behar dela, ezindua edo 70 urtez gorakoa izan behar dela edota bertan lan egin behar duela. Beraz, irisgarritasuna hobetzeko obrak eskatzeko, komunitateko etxe edo lokal jabea izan behar da: bai arrapalak eskatzeko, eta baita igogailuak edota kanpoko aldearekin komunikatzeko beste edozein gailu mekaniko edo elektronikoko eskatzeko ere.

AHOLKUA: Errentari horrek etxe jabearengana jo beharko du, hark obra egitea eska dezan. Errentariaren eta etxe jabearen arteko kontua izango da beraz hau, eta euren artean duten harreman juridikoak zehaztuko du etxe jabeak zenbaterainoko betebeharra duen obra hori egitea eskatzeko, eta obligatorik balu eta eskatuko ez balu, zer norainoko erantzukizuna izango lukeen. Edonola ere, bien arteko kontua da hori, eta ez komunitatearena.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Creación Teoría de Cálculo
de Administración de Empresas
Instituto de Estudios Económicos
Luis de los Ríos



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Miren**, gaur 7 urte egin dituzulako. Ondo pasa etxekoan, eta bereziki, Iker eta Aneren partez.



Zorionak, **Sara**, asteazkenean 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoan partez.




Zorionak, **Danel**, otsailaren 14an 2 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Aimirren partez.



Zorionak, **Jare**, otsailaren 13an 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoan eta bereziki Oihan, Danel eta Izaroren partez.



Zorionak, **Domingo Armero**, astelehenean 100 urte bete zenituelako. Muxu bat eta besarkada handi bat, familiako guztion partez.



Zorionak, **Ibai**, Igandean 3 urte beteko dituzulako! Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Jare, Aratz, Ane, Naia eta anai-a Lierren partez.



Zorionak, **Heleka**, bihar 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez! Ondo pasa lagunekin zure egunean.

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENe astekarian edo
www.barren.eus webgunean
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

943 744 112



BARREN

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

19€ (bi lentilla probak barne)

Itzuleriarako fantasiatzko eta koloretako lentillak



Nieves Iza Sagarzazu

2017ko otsailaren 15ean hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere. Era berean,
Eguneko Zentroko langileek eskainitako arreta ere eskertzen dute.



17 BARIXAKUA

20:00 Gaixo dauden presoen aldeko giza katea antolatu du Sarek. Maalatik Kalegoen plazara.

20:30 Opera diferitua: 'Turandot'. Herriko Antzokian.

18 ZAPATUA

10:00 Mozorro tailerra familian. Atxutxiamaikaren Kiribil egitasmoaren barruan antolatu du Elgoibarko Izarrak Udalarekin lankidetzan. Merkatu plazako lokalean.

19 DOMEKA

9:30 Arbil mendira irteera. Mendaroko Arno Guraso Elkarteak antolatuta. Ikastola ondoko aparkalekuan batuko dira.

9:30 Morkaikok eta herriko ikastetxeek antolatuta, mendi irteera Xoxotera. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira, eta autoz joango dira Aittolaraino.

12:30 Antzerkia. *Euria* antzezlan. Herriko Antzokian.

22 EGUAZTENA

19:30 Hiitzaldia: *Fauna, ur putzuetako animalietatik katamotzaren bila*. Morkaikok antolatuta. Ion Garin eta Egoitz Alkorta eta Ander Izagirre. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23 EGUENA

19:00 Lanbide Heziketari buruzko informazio saioa. Arreiturre Institutua/Meka Lanbide Eskolako bilera-gelan. Udalak IMH eta Mekarekin elkarlanean antolatuta.

24 BARIXAKUA

15:15 Euskal Inauteriak. Elgoibar Ikastolak antolatuta. Ikastolatik Kalegoen plazara egingo dute kalejira. (Euria bada, Ikastolan bertan egingo dute).

16:30 Mozorro festa. Ludotekan.

23:00 Kontzertua: Sinuoseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

17 Barixakua YUDEGO

18 Zapatua ORUESAGASTI

Goizez: GARITAONANDIA

19 Domeka ORUESAGASTI

20 Astelehena BARRENETXEA

21 Martitzena IBAÑEZ

22 Eguaztena GARITAONANDIA

23 Eguena ETXEBERRIA

24 Barixakua FERNANDEZ*

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik: BARRENETXEA (Elgoibar) Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)

San Agustín, 3 - Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

Zinea (Herriko Antzokian)

'Silencio'

18 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

19 domeka: 19:00

20 astelehena: 21:30



Flexiahorro
% 0,55

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-ko; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau operatuko ditzugu: Tupperware marka ospetsuko 10 ONTZI, janaria gorde eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 1,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR.
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72

CA **bankoa**
CRÉDIT AGRICOLE



III. URTEURRENA

Amaia Arrizabalaga Arakistain

*Hitez ezin da esan, Amaia
zuk eman zenigun dena.
Familia bat sortu zenuen
ederretan ederrena,
izan zenuen momentu orok
eskatzen zuen kemena
gaur egun zure seme-alaben
jarretan isla dena.*

*Zu gabe guztiz aldatu zenez
gure bizien ordena,
esan liteke egin dugula
nolabaiteko lorpena.
Izan ere, denok eman dugu jada
pausurik gaitzena:
oroimenean zaitugu lehen
oroiminean zinena.*

Etxekoak

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.
Haren omenez III.urteurreneko meza izango da, zapatuan,
otsailak 18, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



III. URTEURRENA

Amaia Arrizabalaga Arakistain

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela

Ez agurrik, ez adiorik; gero arte bakarrik.

Koadrilakoak



I. URTEURRENA

Jose Mari Loyola Garate

2016ko otsailaren 16an hil zen, 67 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 18,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



III. URTEURRENA

Bittor Alberdi Elorza

"Patxillo"

2014ko otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela.

***Inoiz ez da ahazten galdu den eta maite dugun norbait,
bera gabe ikasten da bizitzen,
baina inoiz ez da betetzen utzitako hutsunea,
bere oroitzapenekin saiatzen gara txikitzen.
Maitxe zaitxugu.***

Etxekoak





Eire Vila

Mikel Olaizola



Osipitaletako gela ilunetan itzaltzen gara, eta aldameneko ohean dagoenaren errainak bien tarteko errezela luzatzen du, norbaitek aurpegia izararekin estali eta ohatilan gelatik ateratzen gaituen arte. Edo beti hartu gaituen intxaurrondo ohean zimelduak, ehorztetxeko langile trajeduen batek plastiko zorro batean sartu eta supermerkatuetakoez oso desberdina ez den orgatila metalezko batean jaisten gaitu oztopo lasterketa bihurtu den igogailurik gabeko etxe zaharraren egurrezko eskilaran behera. Uhal batekin lotuta orduarako haragi hotza, sorpresarik gertatu eta zuloan behera amiltzea eragozteko. Itxuroso iritsi gaitezen kiskali eta parrilan erretako arkume usaineko ke gris bihurtuko gaituen labera.

Beti besteak hiltzen dira, baina batzuetan hurbil erortzen zaizkigu beste horiek. Eta agian neu izango naiz motza, baina heriotzaren aurreko errelato eta erritualik ez daukat ha-

lakotan. Ez dakit tratatzen hil-hurrengoekin, beilatokitan, galararen hutsa oraindik paparrean daramatenen aurrean.

Tragikoaren atrofia da azaleko asetzearen hipertrofia. Urdailari, alaitasun aizun bati etengabeko gorazarreak harropatu gaitu. Pintxo -pote eterno bat ari da bihurtzen bizitza. Bizitza, edo soldatapeko (edo soldata gabeko) lan esplotatu eta alienatu horrek "libre" uzten didan asteko tartetxo hori.

Ze batzuetan triste egoten naiz, baina inori ez diot esaten. Aber konturatu behar diren alaitasunaren tiraniaren poliziak ez nagoela pozik. Egin irri esaten digute, baina nik oihera ere egin nahi dut, negar, gorrotatu, amorratu.

Ba bai, aizu, beti ez nago pozik; eta horregatik errudun sentitu izan naiz inoiz. Nire baitako zerbait erauzi izan balidate bezala, soilik sumiso eta axolagabe izan nadin. Gure energia dena xurgatu dezan norbaitek eta gainera eskerrak eman eta aurpegi ona jarri diezaiozun. Noizbait, nonbait munduak ahaztuta hiltzeko.

*"Ba bai, aizu, beti ez nago pozik;
eta horregatik errudun sentitu izan naiz inoiz"*

II. URTEURRENA

*Ander
Modamio Alvarez*

2015eko urtarrilaren 30an hil zen,
49 urte zituela



*Gurutze
Modamio Alvarez*

2015eko otsailaren 20an hil zen,
54 urte zituela



"Nire bizitzako seme eta alaba"

*Nire bizia=nire seme-alabak
bi urte zuek ikusi gabe
nire zentzumenetan beti
denak betetzen dituzue osoki.
Horregaitik, diotsuet
laster arte, umeak
maite eta bedeinkatzen zaituztet
maite izan nauzuelako horrenbeste
nik merezi gabe*

Ama

II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 18, 19:00etan
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

INAUTERIAK 2017

otsailak 25, zapatua



18:00-19:30 **ATXUTXIKARAOKEA**
2-12 urte bitarteko haurrentzako, Maalako parkean.

19:30-20:45 **MOZORRO KALEJIRA** Maalako parketik Kalegoen plazara
Mauitxa txarangarekin eta erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

21:00-22:00 **KOADRILENTZAKO JOLASAK** Mauitxa txarangarekin
Kalegoen plazan. Euria eginez gero, Maalako parkean.

0:00-02:30 **LAKET** taldearen kontzertua,
Maalako parkean.



elgoibar
bizi-biziXal